

2012ko DANTZA GARAIKIDEAREN ZIRKUITUA

Eusko Jaurlaritzak Sarearen bitartez bultzatzen eta laguntzen duen Dantza Garaikidearen Zirkuitua bere zazpigarren ediziora heldu da 2011an.

Zirkuitua programazio eta kreazio esparruetan Euskadiko Dantza programazioaren egoera aberasteko helburuarekin jaio zen, bide batez publiko zalearen eta euskal ekoizle eta sortzaileen kezkei erantzuna emanez.

Zirkuitua EAEko antzokien zehar Dantza Garaikidea programatzen duen ziklo bat da. Bertan, zerrenda itxi baten barnean antzokiei eskaintzen zaizkien ikuskizunak programatzen dira.

Ikuskizunen katxeta Sareako bulegotik konpainiekin zuzenean negoziatzen da, ikuskizun bakoitzak guztira egingo dituen emanaldi kopurua kontutan hartuz. Urtero zehazten diren irizpideen arabera, Eusko Jaurlaritzak katxetaren portzentaje bat ordainduko die zuzenki konpainiei, gainerakoa, antzokiek, beraiek, ordaindu beharko dutelarik. Beraz, konpainiak bi faktura egin beharko ditu: bata Eusko Jaurlaritzara zuzenduta, diruz lagunduko duen katxetaren zatiaren zenbatekoarekin; eta bestea antzokiari zuzenduta, gainerako zenbatekoarekin.

Taldearen jatorriari dagokionez, ikuskizunek hurrengo diru-laguntza jaso ahal izango dute:

Euskal Konpainiak: katxetaren **%55a BEZa barne eta 2.500€ BEZa barne topearekin**

Kanpoko konpainiak: katxetaren **%40ra BEZ a barne** arte biran egiten diren emanaldien arabera eta **3.000€ BEZa barne topearekin**.

- Emanaldi bat zirkuituan: katxetaren **30%a BEZ a barne**
- Bi emanaldi zirkuituan: katxetaren **35%a BEZ a barne**
- Hiru emanalditik gora zirkuituan: katxetaren **40%a BEZ a barne**

Antzoki bakoitzak egin beharreko difusioaz gain, Zirkuituaren difusio kanpaina eta etengabeko jarraipena bateratuak egingo dira: prentsaurrekoak, aldizkariak, agendak, telebistak, irratiak, eta abar.

Dantza zirkuituko oraingo edizioari dagokionez, helburu zehatzenen artean hurrengoak nabarmendu ditugu:

- Areto berrien partaidetza sustatzea eta aurrekoena egonkortzea zirkuituan.

Zirkuiturekin konprometitzeko eta bertan sartzeko grina sortzea programatzaileengan, parte hartzeko baldintzak malgutuz eta programazio aukerak zabalduz. Hau guztia, zirkuituan parte hartu ohi izan dutenen herrien partaidetza egonkortzeko eta areto berrien sarrera sustatzeko helburuarekin

(SAREaren alor barnean zein kanpoan), posiblea den neurrian eta antzokiei ezarritako parte hartze-irizpideen arabera.

- Programa daitezkeen ikuskizunen katalogoa handitzea, bai euskal produkzioentzako bai kanpokoentzako ere.

- Antzokien koordinazioa sustatzea birak antolatzearen alde bereziki kanpoko taldeen ikuskizunei dagokienez.

- Euskal ikuskizunen gutxiengo baten programazioa ziurtatzea.

Publikoak jada egiaztatu dituen ikuskizunak programatzeko aukera ematea.

- Ohizkoa ez den programazioa egiten saiatzea.

Konpainiek, euskaldunek nagusiki, beraien proposamenak hobeto komunikatzeko ahaleginak egitea sustatzea.

Programatzaileei herriko dantza eragileen kolaborazioa kontuan hartuko duen eta dantza garaikideko erdi-epeko programazioaren proiektua egitea eskatzea.

2012. urteko Dantza Zirkuituan programatzeko epea martxotik abendura izango da.